

**UPV/EHUko SAILETAN IKERKUNTZA SUSTATZEKO DEIALDIA (2020-2022) 1.FASEA. BEHIN-
BETIKO EBAZPENA**

OHAR GARRANTZITSUA: BERRIRO HASIKO DA PROZEDURA IZAPIDETZEN

Berriro hasiko dira zenbatzen prozesu-epeak eta akzioen eta eskubideen preskripzio- eta iraungitze-epeak. Behin betiko erabakiaren aurka errekurtsua jartzeko epea 2020ko ekainaren 4an hasiko da, egun hori barne.

Alarma egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 8. eta 10. artikuluek ondorioz gabe utzi dute, 2020ko ekainaren 4az geroztik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bigarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritako prozesu-epeen eta akzioen eta eskubideen preskripzio- eta iraungitze-epeen etendura (463/2020 Errege Dekretua, alarma-egoera deklaratzeko duena).

Ondorioz, 2020ko apirilaren 27an argitaratutako UPV/EHUko sailetan ikerketa sustatzeko deialdiaren (2020-2022) behin betiko erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua edo, hala badagokio, berraztertze errekurtsua jartzeko epea 2020ko ekainaren 4an hasiko da kontatzen, egun hori barne.

Leioa, 2020ko ekainaren 1a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA